


# BIHOTZ BIHOTZEZ

Joan Praest Linde-rena



*PARAISO ANTZERKIAK EGINDAKO GIDA DIDAKTIKOA  
HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA*

## **AURKEZPENA**

---

TEATRO PARAISO ANTZERKIAK Haur Hezkuntzako ikasleei bereziki zuzendutako ikuskizun bat sortarazi du. "BIHOTZ-BIHOTZEZ" en burutzapenean, ikusle txikienen beharren arabera hizkuntz musikal eta eszeniko bat lortzea bilatu da. Halaber, hurrek osagai eszeniko desberdinekin ezartzen dituzten erlazioei buruzko ikerketa bide bat hasten da.

Kanpaina hau burutuaz, BIHOTZ-BIHOTZEZ, antzezlanaren ikuspena, bereberezko ekintza kulturala delarik, iradokitzen ditugun proposamen hezgarri didaktikoekin batu nahi ditugu.

Hona hemen, labur bildurik, burutzeko lana:

- A. Ikuskizunaren sarrera osatzen duten umea ikusle kontuetan prestatzeko ekintzak.
- B. Antzezpenera etortzea
- C. Espresio Dramatikoari buruzko proposaturiko ekintzak, irakasleak, nahi izanez gero, anima ditzan.

Proposamenaren hiru sail hauek honako arlo hauei ekiten diote bereziki:

### **UMEA IKUSLE ERAGINKORRA DA**

Antzezlanaren antzezpenera etortzeak hartzen du umea ikusletzat helduek egindako arte-kreazio batetan. Muntaketaren ikuspena dugu, beraz, bereberezko helburua, antzezen-ekintza baten partehartzaile izatearen eragingarria, alegia. Ikuskizunaren hasierak, gainera, gehiago azpimarratzen du antzezenaren zeregin hau eta ume ikuslearen betebeharrak eraginkorra.

### **UMEAK ESPRESATU ETA KOMUNIKATU EGITEN DU**

Proposatutako ekintzek ikasle eta irakasleak motibatuta nahi dituzte Espresio Dramatikoaren eremuetara hurbil daitezen.

## UMEA IKUSLE BEZALA PRESTATZEKO EKINTZAK

---

Ikuskizunaren barne badira zenbait ekintza ikusle koskorrak prestatzeko bideratuak:

### 1. ONGI ETORRIA

Antzezpen bakoitzara etor daitekeen ikusle kopuru mugatuak (200 gehienez) harremanetan hasteko aukera ematen die ume eta ekipo artistikoa osatzen dutenei.

Aktoresa batek eta bi musikarari harrera egiten diete umeei antzezlana izango den tokira heltzen direnean. "Mundu magiko"ra sarrerako bidean laguntzen dituzte. Honek soinu eta espazial unibertso batez forma hartzen du, musikarariak eta beraien musika-tresnak umeengandik oso gertu daudelarik eta beraiekin elkar egiten dutelarik..

Sartu eta itzaroteari dagokien erritualaren ondorioz, ikusleak bere zentzazioetan jartzen du aditasun osoa, (eszenografia, argia, musika eta pertsonen motibatuak) eta gertakizunaren zai dago.



## 2. AURKEZPENA

Aktoresak istorioa hasi aurretik, ikuskizunean parte hartzen duten musikariak aurkezten ditu, eta baita ere musika-tresnak. Antzeztokia eta garatutako gaia aipatzen ditu baita ere.

## 3. L TRANSFORMAZIOA

Aktoresa pailazoz mozorrotzen da ume aurrean. Pixkanaka-pixkanaka pertsonaia sortzen doa, itxura fisikoan ezik, pailazoaren izaera itxuratzen duten barne sentimendu multzoan ere.

Umeak eta pailazoaren arteko harreman gero eta afektiboagoa sortu nahi da. Horrela, ikusle koskor hauek pertsonai ezezagunaren aurrean senti ditzaketan



beldurrak (bermakilaia, errazkzio, bere janzkera, etab. direla eta) azal ez daitezten.

Honez geroztik, istorioari ekiten zaio. Arraultza beretik bele bat eta pailazoa sortuta, sentimenduen ikerketa bat hasten da: beldurratik poztasunera.

## 4. AGURRA

Ikuskizuna amaitzen denean "Itzultzea"ko ordua da. Agurraren ordua iristen da. Biolinaren hotsa zabaltzen den bitartean, pailazoak eta teknikoak gidatzen dituzte umeak irteerara, errealitatera itzultzeko bidean lagunduz.

## **EXPRESIO DRAMATIKO ETA MUSIKALA IHARDUERAK**

---

Hona hemen zenbait proposamen beren ikasleekin antzezpena ikustera doazen irakasleek, nahi izanez gero, ikuskizunak eskaintzen dizkigun zenbait elementu (gaia, musika, elementu eszenikoak, etab.) didaktikoki erabili ahal izan ditzaten.

"BIHOTZ-BIHOTZEZ" arrautza beretik atera diren biolin-pailazo baten eta xirula-bele baten istorioa da, pertsonaia hauek mundua ezagutzen nola hasten diren kontatzen diguna. Sentimenduen esplorazioa, bestearekiko harremana eta eguneroko gauzen manipulazioa dira istorio honen beste gai batzuk. Hau dena umeena bezalako jolas luze, serio baten bidez garatua.

Pailazoa eta txoria, beren soinu, jolas eta sentimenduekin, joko-ekintzaren bitartez umeak esperimendazio pertsonalera bultzatzen dituzten bizigarriak bihurtzen dira.

Gomendatzen dizuegu Espresio Dramatikoa eta Musikala lantzeko hainbat tailer egitea talde barruko Adierazpena - Komunikazioa ahalbidetzeko.

Irakaslea izango da, "hemen eta orain" elementuak baloratuz, bere eskuhartzearen bitartez egoera pedagogikoa bultzatuko duena.

## **FITXA PEDAGOGIKOA**

---

### **BITARTEKO OBJEKTUA: ZETA-PAPERA**

#### **JARDUEREN DESKRIBAPENA.**

#### **0. EGOERAN JARTZEA**

Zeta-paper gorria, laranja eta horia tolestuta dago lurrean, zirkulu bat osatzen.

Orri bakoitza kuxin moduko bat da, eta haien gainean eser gaitezke.

Erlazionatu BIHOTZ-BIHOTZEZ ikuskizunarekin, eta hitz egin ikusle txikien bizipenei buruz.

Pailazoak paper hauek utzi dizkigu, eta haiekin jolastuko gara!

#### **1. MARTXAN JARTZEA**

##### **1.1. Norberaren esplorazioa.**

Aurreko posiziotik abiatuta, jarri gorputzaren zenbait atal (burua, ipurdia, sudurra...) paper-orriaren gainean.

##### **1.2. Topaketa lagunarekin.**

Bilatu gure kolore bereko paper-orri bat duen lagun bat eta agurtu. Egin biontzako kuxin bat eta eseri hartan.

Jarduera bikoteka egin daiteke (kolore bereko edo desberdineko paperekin); hiruak (kolore bakoitzeko paper batekin); eta taldeka (kolore bereko paper guztiekin).

##### **1.3. Soinua.**

Zabaldu paper-orria eta manipulatu, harekin soinuak egiteko dauden aukera guztiak ikertzeko.

Motibazio gisa, ikuskizunean entzuten diren musika-tresnak ekar daitezke gogora: kontzertina eta biolina.

Aldaketak:

- Haur batek soinu bat proposatzen du, eta besteek oihartzuna egiten dute.
- Itxi begiak eta entzun haur batek, talde batek... egiten dituen soinuak. Saiatu nola egin dituen asmatzen.
- Grabatu soinuak, eta, gero, entzun eta bilatu irudiak: zeren antza dute soinuek?

#### **1.4.Eraldaketak.**

Erabili papera gure burua aldatzeko, begiztak, kapelak, gonak, kapak eta abar eginez. Edo papera arroparen azpian jar dezakegu gorputzaren zenbait ataletan, tripontziak, konkordunak edo haurdun dauden amak izateko, besteak beste.

#### **2. ERLAXAZIOA.**

Animatzaileak paperarekin bihotz bat egitea proposatzen du. Bilatu norberaren bihotzaren lekua eta jarri papera haren gainean.

Probatu bihotz berriaren taupadak, zenbait erritmo erabiliz.

Itxi begiak eta entzun zer taupada egiten dituen bihotzak.

Haurrei laguntzeko, abesti bat kantatu edo olerki bat irakur daiteke, adibidez. Edo euren bihotzaz hitz egin daiteke: nolako taupadak egiten dituen opari bat irekitzen dutenean; triste jartzen dela lagun bati agur esan eta bakarrik geratzen direnean; eta, lotan daudenean, oso poliki egiten dituela taupadak, lasai egin dezaten amets.

#### **3. ADIERAZPENA-KOMUNIKAZIOA**

##### **3.1.Jaiotzeko esperientzia**

Bikoteka jarriko dira: bat txita izango da, eta bestea, ama. Amak, zeta-papera erabiliz, txita biltzen du. Babesleku seguru bat sortzen du harentzat: arrautza. Ondoren, jaiotzeko eta kanpora irteteko prozesuan lagunduko dio.

##### **3.2.Esperimentazioa:**

- Arrautzaren barruko mugimenduak. Txita ohartzen da atzamar bat, ahoa, oin bat eta abar mugi ditzakeela.
- Oskola hausteko prozesua. Askotariko motibazioak erabil daitezke: hotza egiten du kanpoan, ez dakit zer dagoen kanpoan...
- Osorik edo partziali irtetea. Txitak esku bat ateratzen du, eta, gero, oin bat, burua...
- Kanpora irtetea.

Jarduera amaitutakoan, bikotekideek rola trukatu eta jarduera berriro egingo dute. Ama izandakoa txita izango da, eta alderantziz.

#### **4. ATZERAERAGINA**

Egin kuxin kolektibo bat, tailerrean erabilitako zeta-papereko zati guztiak plastikozko poltsa batean sartuz.

Kuxinaren irudia erabiliz, itzuli tailerraren hasierako sentsazioetara. Zer gertatu da harrezkeroztik? Zer egin dugu? Nola sentitu naiz?

Aukeratu bizi eta elkarbanatu ditugun unerik onenak, eta egin haiei buruzko marrazki bat.

Ondoren, haur bakoitza kuxin berrian –paper-zati guztiak dituen kuxinean– eser daiteke, bere irudia besteei erakusteko eta bere esperientziei buruz mintzatzeko.

#### **ADIERAZPEN DRAMATIKOARI BURUZKO JARDUERAK EGITEKO IRADOKIZUNAK.**

- Proposatutako jarduerak egiteko, beste material batzuk ere erabil daitezke (paperezko edo oihalezko poltsak, kartoizko kaxak, etab.), edo batera material bat baino gehiago.
- Interesgarria izango litzateke haur bakoitzarentzat paper-orri bat baino gehiago izatea, bat apurtuz gero beste bat hartu ahal izateko, batik bat Adierazpena-Komunikazioa atalean.
- Atzeraegina atalean egindako kuxina gorde daiteke, beste tailer batean bitarteko gisa erabiltzeko.

**OHARRA:** Fitxa honen eskema metodologikoa GISELE BARRETEk egindako ikerketetan oinarritzen da. Barret Montrealeko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultateko Adierazpen Dramatikoko irakasle titularra da.